# L'ATHLETIC CAMPIÓ!

berria info

**Gehigarri berezia**
Osteguna, 2012ko maiatzaren 24a

www.berria.info



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS




# Lehoiak Koparen gose dira

Jon Eskudero

Kezka. Ilusioa. Ametsak. Porrotak. Laudorioak. Malkoak. Denetik izan du Athleticek orain arte denboraldi honetan. Marcelo Bielsaren ibilia oker hasi zen taldean, baina gerora zuzendu egin zen, ongi zuzendu ere. Ligan nahi bezain txukun aritu ez arren, bi finaletan sartu dira zuri-gorriak. Europako Ligakoan kale egin zuten, baina guztiak baikor dira Espainiako Kopakoari begira. Bartzelona izango dute aurkari; aukeran, ez da partida erraza izango. Hori bai: arantza atera nahi dute bizkaitarrek, eta zaleei titulua oparitu. Gainera, norgehiagoka horren baitan egongo da sasoiaren balorazioa: irabazi gero, koparen jabe egingo da Athletic, eta aspaldiko partez gabarra atera; galduz gero, berriz, eskuhutsik geratuko da. Beraz, asko dago jokoan, baita datorren sasoiaren planifikazioa ere. Galtzeak denboraldiari abuztuaren hasieran aurre egitera behartuko luke talde zuri-gorria.

Bartzelona da faboritoa. Pep Guardiolaren taldeak ez du titulurik irabazi aurten, eta tituluaren gosez zelairatuko da. Gainera, entrenatzailearen agurreko partida izango da, eta jokalariek nahiko diete merezi bezalako omenaldia egin. Horrek are zailago bihurtzen du Athleticek irabaztea. Dena den, kataluniarrek ere garesti izango dute Kopa. Athleticen jokoak bat baino gehiago maitemindu du aurten, eta Manchesterren erakutsi zuen edonori irabazteko gai dela. Horixe izan daiteke gakoa: baloi jabetza edukitzea eta erritmo bizia ezartzea. Hori lortzen duenak asko izango du irabazia.

Izan ere, bi taldeek antzera jokatzen dute; Guardiola Bielsaren ikaslea izan zen, eta ez alferrik. Atezaina jokalari gisa hartuz, jokoa atzetik hastea gustatzen zaie, eta aurrean aukerak sortzea. Pique que Javi Martinez da; Busquets, Iturraspe; Xavi, Ander Herrera; eta Messi, Muniain. Konparaketak egitea ez da egokia akaso, baina aulkian egoten diren bi intelektualen gustuko marrazkia berdina da. Baloia hanketan ez dutenean, presioa egiten dute goian, aurkariari arnasa hartzeko betarik eman gabe berriz ere jokaldia hasteko. Gauza antzeko asko dauzkate bi taldeek, baina emaitzak ez. Bartzelonak liluratu egin du futbolzalea azken urteetan. Badirudi lehorte txiki batean sarturik dagoela, baina talde handia da. Hori bai: Alvesek eta Puyolek ezingo dute jokatu, min hartuta daudelako. Athleticen, berriz, guztiak daude lehia garrantzitsurako prest.



Herrera, De Marcos eta Muniain, finalerako txartela ospatzen. A. ALDAI / EFE

Orain hiru urte ere, nor baino nor gehiago aritu ziren Athletic eta Bartzelona Kopako finalean, Valentzian. Orduko hartan, 4-1 nagusitu ziren katalanak. Guardiolaren lehen titulua izan zen Bartzelonako entrenatzaile gisa, eta azkenekoa ere euskaldunen kontura lortu nahi du. Orduz geroztik, baina, gauzak aldatu egin dira: zuri-gorriak koska bat gorago daude, eta zelaian erakutsi dute. Ligan San Mamesen jokaturiko partida gogoangarria izan zen, bideoan berriz ikusteko modukoa; bina amaitu zen, baina etxekoak irabazteko zorian izan ziren. Horrek erakusten du Athleticek gaitasuna baduela Bartzelona mendean hartzeko.

## Sasoiko 63. partida

Bi taldeek ez dute bide bera egin Vicente Calderonera iristeko. Egia esan, Athleticek ez du izerdi ikaragarririk botatzeko adinako kontrariorik izan. Lehenik, Oviedo kanporatu zuen; gero, Albacete; final-laurdenetan, Mallorca; eta, azkenik, Mirandes. Izenei erreparatuta, ez dira aurkari gogorrak izan. Zozketa egin zen egunean, garbi ikusi zuten jokalariek berriro final batera iristeko parada zutela, eta ez dute alferrik galdu. Bartzelonaren kontrarioak deserosoagoak izan dira; tartean, Real Madril gailendu du. Hori bai: denbora asko da Kopako finalerdiak jokatu zirela, eta egindakoak ezer gutxirako balio du finalean.

Horrek baino zerikusi handiagoa izango du nekeak eta inspirazioak. Athletic nekatuta iritsi da denboraldiaren azkenera, eta horiemaitzek erakusten dute: azken bost partidetatik ez du alerik irabazi, eta lau galdu ditu. Gainera, gol bakar bat sartzeko gai ere ez da izan. Atletico Madrilen aurka galdu izanak min egin du psikologikoki. Datu kezkagarriak dira, baina Kopako finala prestatzeko denbora nahikoa izan du, eta badirudi sasoi erdialdeko jokoa egiteko moduan direla jokalariak.

Bartzelona ahaltsua da, boteretsua. Athleticzalerik baikorrenak pentsa dezake indarrak berdintzen hasi direla bien artean, eta, akaso, ez du arrazoirik faltako. Ordea, oraindik asko falta zaie zuri-gorriei kataluniarren mailara heltzeko. Bada, horretarako onena Koparen jabe egitea dute. Lehoiak ezin du bizirik iraun jan gabe, eta Bilboko zaleak ere ez, titulurik gabe.

## Els lleons volen la Copa

Maldecaps. Il·lusions. Lloances. Llàgrimes. Fins ara, la temporada de l'Athletic ha tingut de tot. Marcelo Bielsa no va arrencar amb bon peu, amb el temps va anar millorant i ara és a punt de cloure molt bé. Malgrat que no ha complert els objectius a la lliga, ha dut l'equip a dues finals. A la de l'Europa League no van donar la talla, però tots són optimistes de cara a la Copa del Rei. L'Athletic jugarà contra el Barça, un rival dificilíssim. Serà un partit complicat, però els lleons volen treure's l'espina clavada i regalar la victòria a milers d'aficionats que els donen suport des de tot arreu. La valoració de la temporada rau en aquesta final: si guanyen, sortirà la gavarra després de molts anys de no fer-ho; i si perden, acabaran sense haver assolit cap títol. Per tant, hi ha molt en joc. No cal dir-ho: el favorit és el FC Barcelona. L'equip català no ha guanyat els dos principals títols. I, alhora, serà el comiat d'en Pep Guardiola. Totes dues coses compliquen la victòria dels bascos. Això sí: per als de Barcelona també serà difícil guanyar el títol. El joc de l'Athletic ha enamorat uns quants un aquesta temporada. I a Manchester es va poder comprovar que pot guanyar qualsevol equip. Fa només tres anys que els dos equips es van veure les cares a València. Aleshores els culers guanyaren 4-1. El primer títol de Guardiola amb el Barcelona va ser contra l'Athletic i el darrer resulta que és amb el mateix rival. No serà fàcil. L'Athletic és avui un graó més amunt que aleshores.





SEAT Audi
autos ARTIBAI s.l.
SEAT AUDI eta VOLKSWAGEN
Erdotza auzoa, z/g
MARKINA-XEMEIN
tf.: 94 616 77 14 • faxa: 94 616 77 69

artza kirol moda
Aita Elorriaga, 9
Tel.: 94 674 48 99
Lauaxeta, 3
Tel.: 94 615 65 90
artzakirol@euskalnet.net
48100 MUNGIA (Bizkaia)


eroski.es Interneteko zure supermerkatua
atera zukua
Iritsi da eguna. Zaleak orroka ari dira. Ordu gutxi falta dira une berezi-berezi batez gozatzeko. Bizi ezazu. Bihar ere zurekin izango gara, zure denborari zuku guztia atera diezaiozun.
EROSKI online
zurekin
Zure online erosketa
“no cost”
Bidalketa-gastuak DOAN URTE OSOAN zure online supermerkatuan EROSKI red txartelarekin ordaindutako 140 €-tik gorako erosketetan.
Oraindik ez badaukazu, eskatu orain. Doakoa da.

# Zaila bai, baina ezinezkoa ez

Badago baikor egoteko arrazoirik Bartzelonaren aurkako finalari begira. Ikusita Athleticek zer-nolako jokoa egin duen aurtengo sasoian, konfiantza eduki behar da taldean. Egia da Europako Ligako finaleko porrotak eta liga amaierak zapore astuna utzi dutela, baina itxaropena badut emaitza ona lortzeko. Azken urteetako errepasoa eginda, inoiz baino hobeto dago Bilboko taldea, eta gero eta gertuago dago gabarra ateratzeko ametsa betetzea.

Ez da erraza izango. Pep Guardiolaren taldeak ez du titulurik eskuratu, eta, gainera, haren azken partida izango da aulkian. Beraz, jokalariak garaipen gosez zelairatuko dira. Ilusio kontuan, ordea, ez dago Athletici irabaziko dionik. Gertutik dakit jokalariek titulu bat eskaini nahi dietela zaleei, eta burubelarri saiatuko dira horretan. Partida polita izango da ikusteko, eta gol askokoa.

Bi taldeak dira antzekoak. Baloia hanketan edukita sentitzen dira eroso. Bada, uste dut horixe izango dela neurketaren gakoa. Manchesterren eginiko jokoa ateratzen badute Bielsarenek, kopa Bilbora ekarriko dute. Zurigorrien intentzioa izango da baloia Bartzelonari ez ematea, eta erritmo itogarria ezartzea. Eurek asko zabaltzen dute zelaia, eta arriskutsuak dira. Ordea, baloiaren atzetik korrika egitera behartuz gero, Athleticek asko izango luke irabazteko. Gauza bat teoria da, eta bestea praktika.

Praktika hartuz joateko, bada, ezin hobeto etorri zen Europako Ligako finala. Athletic jotzen zuten ia denek faboritotzat, baina ondoren sorpresa gertatu zen. Gehiegizko goseak kalte egin zion taldeari. Atletico Madrilek bikain jokatu zuen, eta merezita gailendu zen. Esperientzia aparta erakutsi zuen. Hain zuzen ere, horixe falta izan dute Athleticeko jokalariek. Dagoeneko, dena den, badaude bi final galdu dituzten jokalariak taldean, eta badakite halako partida bati nola ez zaion aurre egin behar. Esperientzia hori hartzea ona da Athleticentzat, eta Espainiako Kopa burutsuago jokatuko dute. Finalak jokatzea ongi datorkie.

Nik ez dakit zer den final bat galtzea, inoiz jokatu ez dudalako. Athleticek oso talde gaztea dauka, eta curriculum bikaina osatzen ari dira. Orain hiru urte Bartzelonaren aurka jokatutako finaletik, kontuak erabat aldatu dira. Jokalari asko ez ezik, entrenatzailea ere beste bat da. Joaquin Caparrosek lehiakor egin zituen zuri-gorriak, baina Marcelo Bielsak eskailera bat gorago igo du. Sinetsarazi die guztiei gai direla talde handienen pare ibiltzeko, eta, horregatik, ostiraleko finala ere ezberdina izango da.

Funtsean, guztia festa bat izango da. Euskaldunen eta kataluniarren arteko partidak beti dira bereziak, eta iruditzen zait orain hiru urte Valentzian baino elkartasun handiagoa antzemango dela. Gainera, finala Madrilen jokatzeak are bereziago egiten du. Partida baino lehen, partidan bertan eta ondoren festa aparta biziko da. Espero dut irribarre politagoa Athleticeko zaleek egitea. Nire pronostikoa 3-4koa da. Hori bai, penaltietara heldu gabe.

**Roberto Martinez Ripodas 'Tiko'**



# Difícil, però no pas impossible

Hi ha motius per a ser optimista en el partit amb el Barça. Veient com ha jugat l'Athletic durant tota la temporada, cal tenir confiança. És cert que la final de la Lliga d'Europa i les darreres jornades de la lliga no han deixat bones sensacions, però tinc l'esperança d'aconseguir un bon resultat. Repassant els darrers anys, l'Athletic es troba millor que mai i treure la gavarra cada cop és més a prop.

No serà gens fàcil. L'equip de Pep Guardiola no ha assolit cap títol aquesta temporada i, a més, serà el seu últim partit a la banqueta del FC Barcelona. Per tant, els jugadors sortiran a donar-ho tot. Això sí, penso que, pel que fa a la il·lusió, ningú no guanya l'Atheltic. Els de la samarreta vermella i blanca volen dedicar un títol a tota l'afició, perquè s'ho mereix, i ho donaran tot també. Serà un partit bonic de veure i crec que hi haurà força gols.

L'estil de joc de tots dos equips s'assembla molt. Se senten còmodes disposant de la pilota entre els peus i qui ho aconsegueixi tindrà moltes oportunitats per a guanyar. Si els de Bielsa reprodueixen el joc demostrat a Manchester, portaran la copa a Bilbao. La intenció de l'Athletic serà de no cedir l'esfèrica als culers i imposar un gran ritme de joc al camp. Si han de córrer massa rere la pilota, se sentiran incòmodes. Però una cosa és la teoria, i l'altra, la pràctica.

Als jugadors de l'Athletic, per aprendre, els ha anat de meravella la final de l'Europe League. Era l'equip favorit, però després es van endur una forta decepció. Tanta fam per guanyar un títol no els va fer cap bé. L'Atlético de Madrid va jugar molt bé i va guanyar merescudament. L'experiència dels seus jugadors va influir decisivament. És el que els va faltar als biscaïns. De cara a aquesta nova final, han après moltes coses pel camí. Ara ja saben com no s'ha de jugar una final. I els va bé disputar partits de tanta importància.

Personalment, no sé què significa perdre una final, perquè mai n'he jugat cap. L'Athletic té un equip molt jove i estan completant un bon currículum. La situació és completament diferent a fa tres anys, quan els dos equips van jugar la final de Copa a València. Hi ha noves cares i cares bones a Bilbao, inclòs l'entrenador. Joaquin Caparrós va fer l'equip competitiu, però Marcelo Bielsa li ha conferit una altra qualitat. Els jugadors saben ara que són capaços de fer front a qualsevol equip. I per això la final d'aquest divendres serà diferent.

En la meva opinió, viurem una gran festa. Quan un partit aplega bascos i catalans, catalanes i basques, es reviu un ambient especial. A més, jugar-s'ho a Madrid dóna un toc especial a la cita. Abans, durant i després del partit: una gran festa a tot hora. Desitjo que l'afició de l'Athletic surti del Vicente Calderón molt més contenta. El meu pronòstic: un 3-4 a favor dels bilbaïns. Això sí, que no arribin mai els penals.

**Roberto Martinez Ripodas 'Tiko'**








bidera
publizitatea
publi@bidera.eu • 943 303 555



# Madrid no és *Madrid*

Us ho aviso, amics i amigues bilbaïns i barcelonins: Madrid no és Madrid. Sí, s'escriuren igual, semblen ben bé el mateix, però no es diuen igual: Madrid es pronuncia amb calma, sense escarafalls, amb la mà estesa; mentre que Madrid, aquell altre Madrid que s'escriu igual i que no és pas el mateix, es pronuncia arrufant el front, ensenyant les dents, amb els punys premuts. Si cal ho poso en cursiva, per poder saber quan cal canviar el gest en dir-ho.

No, Madrid no és pas *Madrid*. Potser vosaltres cregueu que veniu a *Madrid*, i al final us sorprendrà descobrir que en realitat sou a Madrid. Passa sovint, molts visitants ho noten: esperen trobar-se amb *Madrid*, i acaben quedant-se a viure a Madrid. Sobretot perquè descobreixen que no només hi ha *madrilenys*, sinó molts més madrilenys. Tots aquells, naturals o d'adopció, que lluitem a diari perquè el nostre Madrid no es converteixi en el seu *Madrid*. Els mateixos que sabem que els bascos no són *els bascos*, ni els catalans són *els catalans* que pronuncien amb les dents els partidaris que Madrid només sigui *Madrid*. I encara més: ací som molts els qui pensem que Espanya no cal que sigui *España*. No sé si m'explico.

El nostre Madrid, sense cursiva ni punys estrets, és la ciutat que no pregunta d'on véns, una ciutat acollidora i mestissa, de barris vius que rebutgen per igual que la seva ciutat esdevingui una caserna o una marca turística. És el mateix Madrid que ha sortit tantes vegades al carrer a defensar la ciutat, a ser la tomba del feixisme, a proclamar la República o a rebutjar les noves guerres imperialistes. L'orgullosa capital del 14 de abril, del 15-M, de la marea verda, de les brigades veïnals contra las batusses racistes, de la *bicicrítica* que ocupa el carrer sense demanar permís, de l'Orgull Gai, de les ràdios lliures i els centenars d'espais inquiets per on corre lliure el pensament crític.

És cert que al llarg de la història Madrid ha estat massa cops *Madrid*. Rere el "No passaran" va venir el "Ja hem passat", i la dictadura es va aplicar a fons perquè *Madrid* no tornés a ser Madrid, construint una capital que aspirava a un centralisme dominant, irresistible, sentinella i panòptic contra els qui aspiressin a una Espanya que no fos *España*. Malgrat tot, sota el ciment d'aquell *Madrid* asfixiant, es va mantenir viva la llavor d'aquell altre Madrid que, d'aleshores ençà, es planta desafiant, brota ací i brolla allà i ocupa tot l'espai que pot.

Benvinguts i benvingudes a Madrid. Sense puny tancat, amb la mà oberta.

**Isaac Rosa**
Escriptor de Madrid, no de *Madrid*.



# Madril ez da *Madril*

Abisatuta zaudete, Bilboko eta Bartzelonako adiskideak: Madril ez da Madril. Bai, berdin idazten dira, eta gauza bera direla ematen du, baina ez dira berdin esaten: Madril lasai ahoskatzen da, espanturik gabe, eskua zabalik; Madril, berriz, berdin idatzi baina bestelakoa den beste Madril hori, kopeta ilunduta ahoskatzen da, hortzak erakutsiz, ukabilak estuturik. Nahi baduzue, letra etzanez idatziko dut, jakin dezazuen izen hori esatean noiz aldatu behar duzuen aurpegiera.

Ez, Madril ez da *Madril*. Beharbada, zuek uste izango duzue *Madrilera* zatoztela, eta, azkenean, harritu egingo zarete ikusirik egiaz Madrilen zaudetela. Hala gertatu ohi da, hala gertatu ohi zaio bisitari askori: *Madrilen* egotea espero dute, eta, azkenean, Madrilen bizitzen jartzen dira. Batez ere, konturatzen direlako hemen ez daudela *madrildarrak* bakarrik, madrildarrak askoz ere gehiago direla: hain zuzen, gure Madril haien *Madril* bihur ez dadin egunero borrokatzen garen guztiok, hemen jaioak nahiz kanpotik etorriak izan. Alegia: euskaldunak, zera, *euskaldunak* ez direla dakigun guztiok; katalanak, jakina, *katalanak* ez direla dakigun guztiok, nahiz eta Madril bakar-bakarrik *Madril* izatea nahi dutenek, hortzekin ahoskaturik, *katalanak* aipatzen dituzten. Are gehiago: hemen askok pentsatzen dugu Espainiak ez daukala zertan *Espainia* izan. Ez dakit garbi azaltzen ari naizen.

Gure Madril, letra etzanik eta ukabil estuturik gabea, hiri abegitsu mestizo bat da, nondik zatozen galdetzen ez duena, auzo bizi-bizi batzuk dituena, zeinetan berdin arbuiatzen den hiria kuartel bihurtzea zein marka turistiko bihurtzea. Hiria defendatzeko kalera hainbeste aldiz atera den Madril hori bera da, faxismoaren hilobia izan nahi zuena, Errepublika aldarrikatu zuena, gerra inperialista berriak gaitzetsi dituena. Apirilaren 14ko hiriburu harroa, M-15ena, marea berdearena, sarekada arrazisten kontrako auzotar brigadena, kalea baimenik gabe hartzen duen *bizikritikarena*, Gay Harrotasunarena, irrati libreena eta pentsamendu kritikoa libre dabilen ehunka gune ipurterrerena.

Egia da historian Madril gehiegitan izan dela *Madril*. Harako «ez dira pasatuko» haren ondotik, «pasatu gara» delakoa etorri zen, eta diktadura gogotik saiatu zen *Madril* ez zedin berriro sekula izan Madril: hiriburu modu jakin bat osatu zuen, zentralismo menperatzaile, gailenezin, zelatari eta panoptikoaren aldekoa, *Espainia* izango ez zen Espainia bat nahi zutenen kontrakoa. Hala eta guztiz ere, *Madril* itogarri horren zementuaren azpian, bizirik iraun zuen beste Madril honen ernemuinak, eta, geroztik, landare erronkazale hori han eta hemen hazten da, ahal duen toki gehiena hartuz.

Ongi etorri Madrilera, ukabil estuturik gabe, eskua zabalik.

**Isaac Rosa**
Madrilgo idazlea, ez *Madrilgoa*.

# Un lloc al món, en la Champions de la llibertat dels pobles

## Entitats basques, catalanes i gallegues reclamen a Madrid la oficialitat esportiva internacional

**David Fernandez**

Les plataformes Pro Seleccions Esportives Catalanes, ESAIT i Siareir@s Galeg@s van comparèixer dilluns passat al Congrés dels Diputats per reivindicar, un cop més, el dret de les seleccions esportives de les respectives nacions a competir internacionalment, de manera oficial i sense interferències. A Madrid i acompanyats per entitats de la societat civil i representants polítics, les plataformes basca i catalana van fer una crida específica a dur aquesta demanda històrica a la final de la Copa del Rei d'aquest divendres.




**Plataformako kideak, Madrilen.** BERRIA-VILAWEB

# Ofizialtasunaren aldeko aldarria

## Euskal Herriko, Kataluniako eta Galiziako kirol selekzioen aldeko aldarriaz beteko da Madril

**Jon Eskudero**

Euskal Herriko (ESAIT), Kataluniako eta Galiziako kirol plataformek osatzen duten elkarteak dei egin die Athleticeko eta Bartzelonako zaleei euren herrialdeetako selekzioen ofizialtasuna aldarrikat dezaten, ostiralean Madrilen jokatuko den Espainiako Kopako finalean. Jarraitzaileek norberaren taldeari laguntzeko eskatu dute, banderak baliatuta. Vicente Calderoneko harmailak kolore zuri-gorriz zein Bartzelonaren elastikoaren kolorez betetzea da helburua. Hori bai: probokazioak alde batera uztea beharrezkoa izango da, kirolaren onerako.



















# Toca-la de nou, Pep!

## La final de Copa: darrer partit de l'entrenador, amb l'equip que ha portat el barcelonisme a la glòria

**Vicent Partal**

El 17 de juny de 2008 la junta directiva del Barça, presidida aleshores per Joan Laporta, va anunciar que el nou entrenador de l'equip seria Pep Guardiola. Havia de ser el substitut de Frank Rijkaard, l'home que havia portat el Barça a la segona Champions de la història i que havia tornat al club les ganes de veure-hi bon futbol. Guardiola no tenia experiència com a entrenador, tret d'haver entrenat el Barça B, però molts recordaven els seus enèrgics gestos al camp quan portava el número quatre a la samarreta. Era un 'entrenador sobre el camp', com el va arribar a definir Johan Cruyff.

Quan Guardiola es va fer càrrec del primer equip, ningú no podia pensar que més de doscents partits després, tretze títols, i un possible catorzè avui, el proclamarien sense cap mena de dubte com el millor entrenador de la història del Barça. I encara menys que el joc de l'equip enlluernaria el món omplint d'elogis apassionats un club poc acostumat a ser el centre indiscutible del món.

Les dades mai poden reflectir el joc, però algunes poden donar una idea aproximada del que l'home de Santpedor ha arribat a fer. Per exemple, que la mitjana de gols total ha estat de 2,55 per partit, o que en dos-cents partits només ha patit vint-i-una derrotes. Tres campionats de lliga en quatre anys són el millor balanç de la superioritat del seu equip, que ha conquerit també dues Champions, una Copa i dues Copes del Món de clubs, l'únic títol que el Barça encara no tenia.

Per a la retina de qualsevol amant del futbol, però, Guardiola quedarà com el magnífic director d'orquestra que va fer sonar el Barça com si fos una simfonia èpica. Els rondos inacabables, la manera com Xavi ordenava el joc, la forma que té Iniesta d'amagar la bola, la potència de Puyol, Mascherano tancant la defensa i Valdés posant el seu cos per a aturar pilotes impossibles, els moviments subtils de Sergio Busquets, sempre amb el contrari a un pam i sempre despistant-lo, les cavalcades d'Alves per la banda, les diagonals de Villa o Alexis, la força d'Eric Abidal i tantes i tantes imatges que no es podran esborrar mai. I sobretot la màgia de Leo Messi, un davanter que no és d'aquest món i que ens ha regalat els gols més difícils d'imaginar i els més decisius, des d'aquella cavalcada contra el Getafe, que era un envit a Maradona, a aquell cop de cap en la nit romana que aixecà tot un país del seient.

Al Calderón, Guardiola dirà adéu a aquest Barça de somni i ho farà com a ell li agrada. Jugant en un gran escenari, contra el millor equip que podríem tenir de rivals, amb la pilota en disputa i sense trampes ni distraccions. Perquè, al final, aquest viatge que se'ns ha fet curt demostra que hi ha gent que continua somiant amb la puresa del joc, amb la diversió, amb la noblesa de l'esport, amb l'espectacle, amb dedicar-nos als espectadors el bo i millor del seu ofici. De l'ofici d'entrenador del millor equip del món.



**Els jugadors del Barça diuen adéu a Guardiola.** ALBERT SALAMÉ

# Uki ezak berriro, Pep!

**Espainiako Kopako finala izango da Bartzelona loriara eraman duen entrenatzailearen azken partida.**

2008ko ekainaren 17an, Joan Laporta buru zuen Bartzelonako zuzendaritzak iragarri zuen Pep Guardiolak ordezkatuko zuela Frank Rijkaard. Guardiolak ez zuen eskarmenturik entrenatzaile lanetan; Bartzelona B zuzendu izana, ez besterik. Askok, baina, gogoan zituzten jokalari zenean zelaian egiten zituen keinuak. «Entrenatzailea zen zelaian»: horrela definitu zuen Johan Cruyffek.

Guardiolak lehen taldearen ardura hartu zuenean, inork ez zuen espero hura izango zenik Bartzelonaren historiako entrenatzailerik onena. Eta are gutxiago espero zuen jokoak mundua txundituko zuenik.

Datuek ezin dute inoiz islatu talde baten jokoa, baina datu batzuei erreparatu besterik ez dago Santpedorko entrenatzaileak zer egin duen jabetzeko: 200 partidatan, 21 partida bakarrik galdu ditu Bartzelonak, eta partidako 2,55 gol sartu ditu. Lau urtean lortutako Ligako hiru tituluak dira Bartzelonaren nagusitasunaren adibiderik garbiena.

Bartzelonak sinfonia epiko baten moduan soinu egin zezan lortu zuen orkestra zuzendari bikain baten moduan goratuko du Guardiola futbola maite duen orok. Taldearen jokaldi landu amaigabeak, Xaviren dohainak taldearen jokoa zuzentzeko, Iniestarenak baloia ezkutatzeko, Puyolen indarra, Mascheranoren sendotasuna, Valdesen ereflexuak, Busquetsen mugimendu zorrotzak, Alvesen korrikaldiak, Villaren eta Alexisen mugimenduak, Abidalen indarra... Asko dira ahaztu ezin izango diren irudiak, eta guztien gainetik, bat: Messiren magia.

Guardiolak agur esango dio Calderonen Bartzelona handi horri, ametsetako Bartzelona horri. Berak nahi bezala egingo du. Jokaleku bikain batean jokatuta, aurkari onenaren aurka, baloia jokoan egonda, eta amarrurik eta nahasterik gabe. Guardiolak erakutsi du badagoela jokoaren garbitasunarekin eta ikuskizunarekin amets egiten duen jendea, ikusleoi bere lanaren onena eskaintzeko prest dagoen jendea.





**Jugadors de l'Athletic i del Barça, al partit jugat a San Mamés.** LUIS JAUREGIALTZO / ARP

# Un partit ple de complicacions

**M.Aloy**

El Barça arriba a aquest final de Copa en una situació inèdita, ja que els jugadors fa molts dies que no competeixen i el Barça compta, a més, amb baixes notables. Un equip com el blaugrana, acostumat a competir dos cops per setmana com a mínim, pot acusar molt la baixada de tensió que significa no haver jugat ni un sol partit des de fa gairebé quinze dies. Mantenir en forma i alerta els jugadors ha estat la tasca principal del cos tècnic, que havia valorat fins i tot la possibilitat de jugar un partit amistós el passat cap de setmana per tal de no trencar la rutina de la competició.

Les lesions també compliquen força el panorama blaugrana. Guardiola pràcticament no té defensa. Puyol, sempre tan important en aquesta mena de partits, ha estat operat. Dani Alves també s'ha trencat i hi ha la baixa més que coneguda d'Eric Abidal. Fontàs fa mesos que no pot jugar i Maxwell va abandonar l'equip per anar-se'n al PSG. En aquestes circumstàncies l'única defensa possible, tenint en compte la plantilla actual, estarà formada per Piqué, Mascherano i Adriano, amb la possible aportació de Montoya o d'algun altre jugador de la pedrera. Hi ha fins i tot el dubte de Pinto. El porter no va jugar el darrer partit de lliga per una lesió i, tot i que no hauria de tenir problemes per a jugar la final, el seu estat afegeix encara una mica més de precaució a l'expedició blaugrana.

A la davantera, però, tret de Villa tothom està en condicions de fer front al darrer gran partit de la temporada i de l'era Guardiola.

## Zailtasunez betetako partida bat

Ezohiko egoera batean iritsi da Bartzelonara finalera, taldeko jokalariak aspaldi ez baitira lehiatzen ari. Hori gutxi balitz bezala, hutsune garrantzitsuak ditu. Bartzelona ohituta dago astean bi partida jokatzera, eta, beraz, azken egunetako tentsio falta horrek kalte egin diezaioke. Jokalariak sasoiko eta tentsioan mantentzea izan da entrenatzaile taldearen behar nagusia, eta, horretarako, lagunarteko partida bat jokatzea ere pentsatu zuen. Azkenik, hala ere, ez du horrelakorik egin.

Gainera, lesioek ere ez diote mesederik egiten Bartzelonari. Pep Guardiolak defentsa osoa falta du kasik. Puyoli ebakuntza egin diote; Dani Alvesek lepauztaia hautsi berri du. Eric Abidal ere ez dago jokatzeko moduan, ezta Andreu Fontas eta Maxwell ere. Egoera honetan, defentsa posible bakarra egungo taldea aintzat hartuta, hau da: Adriano, Pique, Mascherano eta harrobiko jokalariren bat, Montoya, ziurrenik. Zalantzan dago Pinto jokatzeko prest dagoen. Atezainak ez zuen jokatu, Ligako azken partida min hartuta zegoelako, eta, ustez, finala jokatzeko arazorik ez duen arren, entrenatzaile taldea ez dago erabat lasai.

Erasoan, ordea, Villa ez beste jokalari denak daude prest sasoiko azken partidari eta Guardiolaren aroaren azken neurketari aurre egiteko.



# BARÇA TXAPELDUN!

VilaWeb

**Suplement especial**
Dijous
24 de maig de 2012

www.vilaweb.cat



ALBERTO ESTEVEZ / EFE


